

# Denbora-

## 1 Sagu Jakintsua

Maiz entzungo zenituzten gizon hauen izenak albistegietan, ezta? Asmatuko al zenukete nongo presidenteak diren?

G.W. BUSH  
T. BLAIR  
R. ZAPATERO  
J. CHIRAC



E. BATUA  
FRANTZIA  
AEB  
ESPAINIA



**Erantzunak:** 1.- G.W. Bush-AEB, T. Blair-Frantzia. 2.- Zapatero-Espainia eta J. Chirac-Espainia. 3.- Arrunt, eroso, hondatu, horzka eta azpiko. 4.- A-I, E-D, G-B eta H-F. 5.- Astakirten, sagardotegi, txirritindulari, arkakuso, egunkaria eta inkomunikazio.

## 2 Aukeratu hitz zuzena

Ai, zenbat buruhauste ematen dituen H hizkiak! Hitz hauetatik zein daude zuzen idatziak?





## 3 Hitzak sortu

Alfabetoko bederatzi hizki aukeratu ditu Maialen irakasleak. Ahalik eta hitz gehien sortzea da ikasleen lana. Zenbat sortu dituzu zuk?

# -pasak

## 4 Lotu bikoteak

Arrain guztiak txukun-txukun ipini behar ditu iraitzek. Horretarako, balio bereko arrainak binaka jarri behar ditu. **Nola sailkatu ditu?**




## 5 Mamuen mezua

Mamu bakoitzak silaba bat du soinean idatzia. Kolore bereko mamuak batuz gero, hainbat hitz osatuko dituzu. **Zer diote mamuek?**


## Jolasa

### Errota

Pentsatu ongi non kokatu edo nora mugitu nahi duzun fitxa. Hutsegite baten erruz fitxarik gabe gera baitzaitezke

**1** Marrazkian ageri den taula paper batean marraztea izango da lehen lana. Ondoren, lerroen elkarjuneetan fitxak kokatuko dituzte jokalariek, txandaka (ikus marrazkia).

**2** Jokalari batek bere hiru fitxak lerroan jartzea lortzen duen aldiro, errota bat osatuko du. Orduan, aurkariaren fitxa bat taulatik kentzeko eskubidea izango du. Errotaren zati diren fitxak, ordea, ezin ditu kendu.



**3** Fitxa guztiak kokatuak daudenean, jokalari bakoitza, txandaka, bere fitxak mugitzen hasiko da. Lerroari jarraituz, hutsik dagoen elkarjuneraren batera mugi dezake fitxa.

**4** Jokalari batek errota egitea lortzen duen aldiro, aurkariaren fitxa bat kenduko du taulatik.

**5** Aurkaria bi fitxarekin uzten duen jokalariak irabaziko du partida. Jokalariaren bat fitxak mugitu ezinik gertatzen denean ere, beste jokalariak irabaziko du.